



DONOSTIARREKIKO KONPROMISOA

DONOSTIAREN ALDEKO ITUNA

EAJ-PNVren eta PSE-EEren arteko gobernu-akordioa

2023-2027 agintaldia

1. DONOSTIAREN ALDEKO ITUNA

1. DONOSTIARREKIKO KONPROMISOA

2. GOBERNU ERANTZUKIZUNA

1. DONOSTIAREN ALDEKO ITUNA

Donostia beti izan da hiri plurala, eta halaxe erakusten dute, beste behin ere, 2023ko maiatzaren 28ko udal-hauteskundeen emaitzek. Hala, ezinbestekoa da hiriko indar politikoen arteko akordioa gobernu sendoak eta gehiengodunak eratzeko.

Egonkortasuna eta adostasun politikoa funtsezko elementuak dira hiriaren kudeaketa oinarritzeko. Horrela jar baitezakegu hiriak aurrera egiteko bidea, proiektu partekatuen aterki handi baten pean; helburua, betiere, aurrera egitea eta donostiarren bizitza hobetzea dela.

Konpromiso-dokumentu hau idatzi dugun alderdi politikook Udalbatza osatzen duten 27 zinegotzietatik 14 ordezkatzeko ditugu (9 EAJ-PNV eta 5 PSE-EE), eta Udalbatza da herritarren borondatea ordezkatzeko duen organo gorena.

Gure helburua gehiengoan oinarritutako udal-gobernu bat babestea da, amaitu berri den legegintzaldian hasitako proiektu eta planak burutu eta hiriaren etorkizunerako ekimen eta erronka estrategiko berriei aurre egingo dien programa baten inguruan.

Dokumentu honek hiri-eredu ireki, plural eta aurrerakoi baten aldeko akordioa jasotzen du, proiektu eta erronka estrategikoei helduko dien akordioa, desberdinen arteko elkarriketa eta adostasunetik abiatuta. Horretarako, eragile sozialak, ekonomikoak, kulturalak, hezkuntzakoak, kiroletakoak eta herritar guztiak ere hiriaren garapenaren protagonista aktiboak izatea nahi dugu. Izan ere, kohesioan, gizarte inklusioan eta donostiar guztien bizi-kalitatearen hobekuntzan aurrera egin nahi dugu; betiere, gizarte plural, dinamiko eta ireki batean entzute aktiboa egingo duen koalizio-gobernu baten eta ikuspegi zabaleko politikak abiaraziko dituen gobernu sendo baten bidez.

EAJ-PNVren eta PSE-EEren arteko akordio honek 5 konpromiso biltzen ditu:

1. Donostiarrak eta gure auzoak izatea gure ekintza politikoaren ardatz.
2. Kalitatezko enpleguak sortzea, gizarte-kohesiorako tresna izateko.
3. Etxebizitza-politika berritzaileen bidez gaztetutako hiri batean bizitzea eta gozatzea.
4. Elkarriketan eta herritarren konplizitatean oinarrituta lan egitea, hiri partekatu baten alde.
5. Gure hiriaren etorkizun jasagarria eraikitzea.

Ilusio handiko lau urte ditugu aurrean, hiria egiten jarraitzeko, orain arte bezala. Pasa den legegintzaldi honetan, bi urteko pandemia izan dugu, eta zailtasun eta ezusteko asko gainditzeko gai izan gara. Orain, errealismoz eta elkartasunez ari gara aurre egiten krisi ekonomikoaren eta nazioarteko ezegonkortasun geopolitikoaren ondorioei. Baina, zailtasunak zailtasun, Donostiak aurrera egiten jarraitu behar du, herritarren parte-hartzearekin, tokikotik munduko hiri eta komunitate guztiek ditugun erronka globalei aurre egiteko.

Datozen urteak funtsezkoak izango dira hurrengo hamarkadetako Donostia definitzeko.

Zahartzearen erronka demografikoari aurre egin behar diogu, zainketa onenak eta gizartean aktiboki parte hartzeko bidea emanaz adineko pertsoneri. Era berean, eskubide osoko donostiarantz hartu eta integratu behar ditugu gure hiriak ekonomikoki eta sozialki aurrera egiten jarraitzeko behar izango ditugun pertsonak ere.

Eta erronka horretan, Donostiako gazteek funtsezko protagonismoa dute. Gazterik gabe ez dago etorkizunik Donostiarentzat. Kalitatezko enpleguak eskaini behar dizkiegu, eta arrazoizko prezioko etxebizitza eskuratzeko modua.

Horregatik, etxebizitza izatea –bereziki gazteentzat, baina baita familia eta pertsona kalteberentzat ere– ezinbesteko premia da. Hori dela eta, irtenbideak bilatzen dituen hiri bat eraikitzearen alde egingo dugu. Ingurumen-jasangarritasuna, hiri-espazio publiko kalitadedunak eta etxebizitza berriak sustatzea izango dugu helburu hor, alokairuko etxebizitzak sustatzea bereziki. Horretarako, Urumea ibarra urbanizatzea indartu eta Loiolako Kuartelen etorkizuna anbizio eta irtenbide arkitektoniko berritzaileekin proiektatuko dugu; eta erakundeen zein herritarren arteko akordioa eta ituna burutuko dugu Easoko trenbide-zabaldegiaren etorkizunerako.

Hiriko mugikortasun iraunkorrari adostasunean oinarrituta helduko diogu, herritarrekin itundutako mugikortasun-plan baten bidez, mugikortasun iraunkorra baita emisio kutsatzaileak murrizteko eta klima-aldaketaren aurka aktiboki borrokatzeko funtsezko tresnetako bat.

Topoaren obrak amaitzeak ere lagunduko du horretan; eta topoa, Dbusen garraio publikoa eta Mugi sistema izango dira hiriko eta metropoliko mugikortasun iraunkor berriak izango duen egituraren ardatza eratuko dutenak. Halaber, oinezkoentzako lekua irabazten eta bidegorri berriak garatzen ere jarraituko dugu.

Edozein jarduera ekonomikok bezala, turismoak ere erregulazio eta kontrol neurriak behar ditu, eragin negatiborik ez izateko. Bizitzeko hiria da Donostia, eta hala izan behar du aurrera ere. Horretarako, oreka bilatu behar da egunerokotasunean.

Donostiak turismoa ahalik eta ondoen kudeatzeko erabakiak hartu ditu. Horregatik, azkeneko urte hauetan 4 neurri handi hartu dira kontrol eta erregulazio hori izate aldera:

- 1.- Parte Zaharra jarduera ekonomikoz asetako eremu izendatzea.
- 2.- Etxebizitzak turismorako erabiltzea zorrotz arautzea.
- 3.- Plan Orokorren hirigintza-arauak aldatzea, bizitegi-eraikinetan hotelik ez jartzeko.
- 4.- Etetea hotel eta etxebizitza turistikoetarako lizentziak ematea.

Orain diren neurriei turismo-tasa ezartzeko borondatea ere gehitu behar diegu; turismoa jasangarria, orekatua eta erantzunkidea izan dadin.

Berrikuntzarekin, zientziarekin eta teknologiarekin lotutako jarduera ekonomikoak erakarriko ditugu; eta ekonomia indartsu eta ekintzailearen aldeko apustua egingo dugu, aberastasuna, enplegua eta gizarte-kohesioa sortuko dituen hiriko auzo guztietan.

Ekimen berriak eta lehen mailako ekitaldiak izan, eta kulturaren eta kirolaren arloan erreferentziatzeko hiria izaten jarraitu nahi dugu. Gogor segitzen duena borrokan inklusioaren alde, aniztasunaren,

emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren, eskubideen eta askatasunen defentsaren eta terrorismoaren eta indarkeriaren biktimen aitortzearen alde.

Donostiarrok hiri bikaina jaso dugu ondare. Etorkizuneko belaunaldiei utziko diegun Donostia eraikitzea da orain gure konpromisoa.

Elkarren artean eraikiko dugu etorkizuneko Donostia.

2. DONOSTIARREKIKO KONPROMISOA

EAJ-PNVren eta PSE-EEren artean 2023-2027 agintaldia aurrera eramateko adostutako oinarrizko jarduketa-printzipioak 5 ardatzetan biltzen dira:

1. DONOSTIARRAK ETA GURE AUZOAK IZATEA GURE EKINTZA POLITIKOAREN ARDATZ.

Gure helburua da pertsonen neurrira egindako hiria egitea: zaindutako auzoak eta kalitatezko zerbitzu publikoak izango dituen, garraio publikoarekin ondo konektatuta eta adin guztietako pertsonentzat atseginak eta irisgarriak izango diren auzoak dituen. Auzo seguruak –kaleetako segurtasuna indartuz eta delituak murriztuz– eta turismo jasangarria –hotelak jartzeko kontrola sustatuz– izango dituen.

Donostiarrak beren bizitzako etapa guztietan zaintzearen alde gaude; hiria ingurune gizatiarrago, atseginago eta irisgarriago izateko jarduerak bultzatu eta, hartara, bidea izateko: batetik, gazteenen bizi-proiektuak garatzeko eta lana eta alokairu eskuragarriko etxebizitzak izateko; eta, bestetik, pertsona ahulenei zaintza eta babesa eskaintzeko, gero eta kohesionatuagoa, solidarioagoa eta bizi-kalitate handiagokoa izango den Donostian. Helburua zaintza-politika berriak egin eta adineko pertsonen bizitza erraztea izango da, beren ingurunean, etxebizitzan eta auzoetan ahalik eta denbora gehien bizi daitezen. Hori da neurririk onena nahi ez den bakardadearen eta deserrotzearen kontra egiteko.

Gizarte demokratiko bateko herritartasuna definitzen duen balio publikoa da guretzat zainketa, bai eta –bizi-ziklo osoa zeharkatzen duen ondasun komuna denez– erantzukizun partekatu gisa aitortu beharreko balioa ere. Horrek, politika publikoen diseinuak eta garapenak batzuetan izaten duen zatiketa gainditzea eskatzen du; izan ere, udal-arlo guztien beharra dute zainketek, eta pertsona guztiak inplikatzeko dituzte –duten egoera dutela ere–, baita ingurunearekin dugun harremana ere. Arlo publikotik zaintzea pertsonen eguneroko bizitza erraztea da, eta, horregatik, zerbitzu publikoak –hezkuntza eta osasuna, adibidez– indartzearen alde egiten dugu, donostiarren zaintza errazteko eta herritarren gizarte-kohesioan gehiago eragiteko tresna izateko.

Auzo guztiak dira hiriaren bihotza, eta donostiar guzti-guztiak dira lehen mailako herritarrak. Horregatik, entzute aktiboko politikak indartuko ditugu, herritarren konplizitateak ehuntzeko eta auzo bakoitzean proiektu bateratuak eta partekatuak abian jartzeko, herritarren bizi-kalitatea hobetzeko moduko proiektuak.

Tokiko politikek zeharkakotasun handiagoa izan behar dute, baldin eta donostiarrak jarriko badira jardun guztien erdigunean, besteak beste, gizarte-politikan, osasunean, artean eta kulturaren, balioetaren oinarritutako hezkuntzan, berdintasunean, hirigintzan eta espazio publikoan, mugikortasunean, ingurumenean, ekonomian eta enpleguan, edota zientzian eta jakintzan.

Gure hiriko segurtasuna indartzen jarraituko dugu. Gure auzoetako kaleetan izango den polizia-eredu komunitario, gertuko eta prebentziozko baten aldeko apustua egiten dugu, delitu-portaeren aurrean jarduteko prozedura erabakigarri eta eraginkorrak izango dituen. Gainera, presentzia horrek isla espezifikoak izan behar du Ekialdeko Barrutian –Udaltzaingoaren bitarteko polizia-etxe bat izango baita han–, eta baita Egian ere –Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren arteko polizia-etxe misto bat jarriko da eta han–.

Turismoaren kudeaketa jasangarria egitearen aldeko apustua egiten dugu. Turismoak hiriarentzat aberastasuna eta herritarrentzako ongizatea sortzen duen industria jasangarria izaten jarraitzea nahi dugu. Kalitatea kantitatearen gainetik jarriko duen jarduera. Adimen analitikoak eta emozionalak kudeatu behar dugun jarduera. Gure helburua Donostia zaindu eta orain den oreka ez haustea da; helmuga zaintzeko tresnak ezarri eta handituz babestuta hiria, bisitarien eta donostiarren arteko orekari eusteko eta turismo jasangarria sendotzeko hartara. Munduari irekita den hiri abegikorra izaten jarraitu behar du Donostiak hemendik aurrera ere.

2. KALITATEZKO ENPLEGUA SORTZEA, GIZARTE-KOHESIORAKO TRESNA IZATEKO.

Donostiak du EAEko hiru hiriburuetakoa eta Estatu osoko langabezia-tasarik txikiena. Hala ere, kolektibo batzuek (45 urtetik gorako pertsonak, gazteak eta emakumeak) zailtasun handiagoak dituzte lana aurkitzeko orduan. Langabeziak genero eta lurralde osagai argia du (emakumeak eta Ekialdeko Barrutia).

Ahalegin handiagoa egingo dugu kolektibo horientzako politika aktiboetan: prestakuntza eta laneratze programa espezifikoak egingo ditugu hiriko enprekin eta ekintzaileekin batera.

Kalitatezko lanpostuak sortu nahi ditugu; kalitatezko lanpostu gehiago izateak dakar desberdintasunari aurre egiteko modua eta. Donostia zientziaren eta ezagutzaren hiri gisa indartzea. Eskusaitzetako industria-jarduera sektore berritzaileetan puntakoak diren industrien bidez bultzatzea; eta teknologian eta jasangarritasunean puntan diren enpresa-polo bat planteatzea, Auditz Akularren (Altza), Ekialdeko Barrutira ere kalitatezko enpleguak erakartzeko.

Ekintzailetza bultzatzen duten, talentua sustatzen duten eta gure hirian enplegua sortzen duten ikerketako, berrikuntzako eta aurrerapeneko ekimenak eta proiektuak babestea eta sustatzea. Finean, inbertsio-industria berritzaile sendo baten alde egin nahi dugu, ekonomia aurreratua lortzeko.

Gure Barne Produktu Gordinaren (BPG) % 3,6 I+G+Bra bideratuta dago; ikertu, talentu gaztea kontratatu eta aberastasuna sortuko duten proiektu lehiakorak abian jartzera. Espainian den % 1,4 baino askoz gorago gaude, eta baita Europar Batasunak gomendatzen duen % 2aren gainetik ere. Beraz, hiri gisa, ahalegin handia ari gara egiten zientzian eta ezagutzan inbertitzen, Europako gizarte

aurreratuagoen parean jartzen gaituen inbertsioa. Eta lanean jarraituko dugu I+G+Bra bideratutako BPGa % 4ra iritsi dadin legegintzaldi honen amaieran.

Datozen lau urteotan ere ekintzailetzarako inbertsio tasa handiei eusten eta bultzatzen lagunduko dugu; izan ere, gainditu egin nahi dugu bere talentua eta egiten jakitea ematen duen 7.000 pertsonako kopurua; garatzen ari diren ekoizpen-jardueretan, zientzian eta ikerketan erreferenteak direnetan, aurrerapen-eragileetan eta aberastasun-sortzaileetan aritzen direnen kopurua baita hori.

Hiriko zientzia eta berrikuntza ekosistemarekin batera lan egiteko konpromisoa hartzen dugu; aurrerapenaren, berrikuntzaren eta bizi-kalitatearen hobekuntzaren erreferente oraindik eta handiagoa izan dadin Donostia hemen eta nazioartean. Zientzian eta ezagutzan erreferente, ordea, gizartean eragiteko izan nahi dugu: berrikuntza inklusiboa eta jasangarria lehenetsiz, elkarlaneko elkarteak sustatuz, gizarte-erantzukizuna sustatuz eta jendea berrikuntza-ekimenen garapenean inplikatzuz; izan ere, horrela izango baitugu berrikuntza eta garapena bultzatu eta, aldi berean, gizarte eta ingurumen erronkei heldu eta gizarte-ekitatea sustatzeko bidea.

Lan hori administrazio publikoekin, inguruko unibertsitateekin, berrikuntza teknologikoa eta zientifikoa sustatzen duten ikerketa zentro eta institutuekin eta hiriari enplegua, aurrerapena eta aberastasuna ematen dioten enpresa eta ekimen pribatuekin lankidetzan estuan egin nahi dugu. Esparru horretan, funtsezkoa da euskal unibertsitate-sistema osoarekin lankidetzan aritzea, benetako ezagutza-ekosistema bat eratzeko, sarean lan egiteko eta interes orokorrari ekarpena egiteko gai izango dena.

3. ETXEBIZITZA-POLITIKA BERRITZAILEEN BIDEZ GAZTETUTAKO HIRI BATEAN BIZITZEA ETA GOZATZEA.

Donostia dagoeneko murgilduta dago azpiegitura-berritze prozesu handi batean; hiri-paisaia aldatu, zabaldu eta modernizatuko duen prozesuan. Hiria beste begirada batekin eraikitzeke unea da: hirigintza iraunkor berri baten bultzadarekin, arkitektura berritzailez eraikitako etxebizitza berriekin eta kalitatezko hiri-espazioekin. Aldaketa-prozesu sakon horietan, etxebizitza berriak sustatzeko eta eraikitzeke politikek izango duten helburua oreka bat izatea da, Donostiako gazteen emantzipazio eta familia-bizitza proiektu duinak izateko ezinbesteko eskakizunaren eta hiriaren beraren biztanleria hazkundearen artean. Gure konpromisoa, beraz, etxebizitza-politika irmo bat sendotzea da, batez ere alokairuko etxebizitza publikoena. Horretarako, HAPOn berrikuspenean jaso behar dira alderdi horiek guztiak, eta han islatu donostiarrek arlo horretan dituzten beharrentzako irtenbideak eta erantzunak ere.

EAEko eta Estatuko etxebizitza legeek ematen dizkiguten tresnak erabiliko ditugu alokairu-merkatuko gune tentsionatu jotzeko irizpideak betetzen dituzten auzoak hala deklaratu eta, hartara, alokairuen prezioei topeak jarri eta gure gazteek lehen etxebizitza eskuratzeko aukera izateko.

Hemendik 2033. urte aldera bitarte 6.000 etxebizitza berri eraikiko dira Donostian, eta bultzada handia emango zaio alokairuko babes ofizialeko etxebizitzari. Loiolako kuarteletako lurra erosteko egiten ari garen inbertsioa funtsezko mugarrria da epe ertainean helburu hori lortzeko.

Era berean, Eusko Jaurlaritzarekin ere badugu akordio bat egin TOPOaren trenbide-pasabidea lurperatu ondoren Easoko trenbide-zabaldegiaren hirigintza berritzeko. Hala, aukera ederra izango du Donostiak hiriaren bihotzean bertan hirigune berri bat eraikitzeko, herritarrekin partekatutako proiektu berritzaile bat eginez.

Etxebizitza-politika Eusko Jaurlaritzarekin batera egituratuko da; bereziki, onartuta eta garatzen ari diren zuzkidura-apartamentuen proiektuetan (Manteo edo Loiolako Erriberak, besteak beste). Garrantzi berezia emango zaio beste erakunde publiko batzuekiko koordinazioari eta osagarritasunari. Hala, Donostialdeko metropoli-eremuko udalerriekin koordinatuta egingo da plangintza, jasagarritasun-irizpideei eutsiz eta lurzuaren artifizializazioa saihestuz ingurumen-intereseko lekuetan eta hiriko goi-eremuetan.

Illunbeko eremuari ere helduko diogu, eremu berritzailea izan dadin. Hiria gaztetzeko funtsezko bi elementu konbinatuko ditugu: zientziari eta berrikuntzari lotutako kalitatezko enpleguak izatea (Miramongo parke teknologikoa handituta) eta alokairuko bizitegi-irtenbideak ematea, Donostiako gazteen talentuari eusteko eta aldi baterako ostatu eskaera handiari erantzuteko, hirian diren jardura ekonomikoek eta zientzia eta teknologia ekosistemak horrelako ostatu eskaera handia eragiten du eta.

Donostiako etxebizitzaren eta auzoen berroneratze integralerako eta birgaikuntza efizienterako proiektuak bultzatuko ditugu, beste erakunde batzuekin lankidetzan jardunda.

Dagoeneko ere aldaketa asko ari dira izaten gure hirian mugikortasun aldetik, eta epe ertainera beste era batera moldatuta izango da, bai hirian mugitzeko modua, bai eta azpiegitura eta espazio publiko berriez gozatzeko modua ere. Saihestu egingo dugu artifizializatu gabeko espazioak eraldatzea, eta espazio publiko handiak berreskuratu eta herritarren eskura jartzea ahalbidetuko dugu, gune horiez gozatu ahal izateko.

Alde horretatik, Donostiako itsas pasealekuaren erremateari ere ekingo diogu, Saguesen. Gune publiko handi bat izango da, Uliaren magalean integratuta. Begiratoki bat eta egonleku mailakatu bat izango ditu, hiriko beste muturrean (Haizearen Orrazian) dagoenarekin lotuta. Gainera, ingurua Zurriolako pasealeku alderantz bulebar bihurtzeko modua ere izango dugu, eta berdeguneak, lorategiak eta espazio diafano balioaniztun handi bat sortu, kontzertuak eta beste jardura batzuk egiteko.

Funtsezkoa da tokiko merkataritzak eta ostalaritzak hiriaren bizitasunean eta auzoetako bizikidetzan eta gizarte-kohesioan duten garrantzia. Donostiako merkataritza txikiak 2.000 establezimendu baino gehiago ditu, eta jardura ekonomikoaren % 22,9 osatzen du. Sektore horren BPGa hiri osoaren % 10,1 da.

Bestalde, ostalaritza ere sektore garrantzitsua da gure hiriarentzat, milaka enplegu sortzen baititu Donostiako familientzat. Gure kultura gastronomikoa balio handi bat da, Donostia identifikatzen duena, eta erakargarri eta nazioartean aintzakotzat izateko bidea ere ematen diona.

Bi sektore horiekin batera lan egitea proposatzen dugu, hiriko merkataritzaren eta gastronomiaren bikaintasuna hobetzeko. Horretarako, merkataritza eta ostalaritza sarea indartuko duten jarduketak sustatuko ditugu, zenbait esku-hartze eginda; adibidez, hiri-espazioan jarduketa batzuk egitea, oinezkoentzako gune berriak jartzea, gune publikoa ostalaritzarako okupatzeko ordenantza eguneratzea edota belaunaldi-erreleboa ahalbidetzen laguntzea.

Hiri bizia hiri gaztea da, irekia, dinamikoa eta kultura-mugimendua duena. Izan ere, kalitatezko kultura, kalitatezko demokrazia anitz eta askotarikoa ere bada.

Horretarako, oso elementu baliotsuak ditugu: nazioarteko jaialdiak, ekipamendu-sarea eta, batez ere, gure profesionalak eta sortzaileak.

Donostia bultzatu nahi dugu Kulturaren eta Kirolaren Hiri gisa. Bere ondarea eta kultur eta hizkuntza aberastasuna zaintzen dituen hiria.

Industria sortzaileak sendo bultzatu eta sektorearen profesionalizazioa sustatuko duen hiria. Ideia berrietara eta sortzaile, artista eta herritarren beharretara irekita izango den hiria, eta kultura gizarte-kohesiorako eta balioetan hezteko tresna jarriko duena.

Hemendik aurrera ere kultur programazioa eta jarduera hiriaren eragile garrantzitsua izatea nahi dugu. Dinamismo eta prestigio adierazle bat da, eta aukera-iturri ere bai, sortzaileek, artistek, sustatzaileek, teknikariek eta kultura-industriak osatzen duten kultura-sarearentzat.

Kultura-dinamismo hori ez da jaialdietan eta ekitaldi handietan bakarrik adierazten; hiriko 11 kultur etxeen urteko eskaintzan ere islatzen da, 17.000 biztanleko kultur etxe bat baita gure hirian. Hori DK (Donostia Kultura) txartelaren arrakastan ere ikusten da: 116.000 bazkide baino gehiago. Hori guztia, jakitun izanik Donostia Kulturaren kultur etxe eta liburutegi sareak hausnarketa bat egin beharra duela etorkizunari aurre egiteko eta herritarren artean erreferentziazko zerbitzu izaten jarraitzeko.

Kultura-zerbitzuak zabaltzeari ere heldu egin behar zaio: Bidebietan zentro zibiko-kultural berri bat, eta Amaran Espainiako Gobernuarekin negoziatuta Pio XII.ean den Gobernuaren ordezkariordetzaren eraikinarena.

Donostia hiri aktiboa eta osasungarria da. Hala erakusten dute datuek: biztanleen % 73k erregulartasunez egiten du kirola. Gizartean duen eragina garbi ikusten da gure hirian zenbat kirol-modalitate egiten den begiraturaz gero, maila guztietan egin ere (eskolatik eliteko kirolera); eta indar eta gizarte proiektio berezia du gurean emakumeen kirolak. Beste horrenbeste gertatzen da hiriak hartzen duen tokiko, estatuko, Europako eta nazioarteko kirol-jarduera askorekin ere.

Beraz, ezinbestekoa da legegintzaldi honen barruan Anoetako kirol-hiriko ekipamenduak berritzea eta Illunbe egokitzea, Donostiak lehen mailako kirol, kultur eta arte ekitaldiak hartzeko izan behar duen erabilera anitzeko pabiloi izateko Illunbekoa.

Inbertsio horiei aurre egiteko behar den finantzaketa lortzeko, erakunde arteko konpromisoa izatearen alde egiten dugu –eskumena duten erakundeak inplikatu dituen konpromisoa–, bai eta Errealarekin futbol-zelaiari buruzko akordio bat adostearen alde ere, eta hortik lor litezkeen baliabide ekonomikoak Anoetako kirol-hiri osoa hobetzera bideratzea.

4. ELKARRIZKETAN ETA HERRITARREN KONPLIZITATEAN OINARRITUTA LAN EGITEA, HIRI PARTEKATU BATEN ALDE.

Hirian diren «Donostien» aniztasuna ospatzea, sentsibilitate adina «Donostia». Euskararen normalizazioaren eta hiriko hizkuntza-aniztasunaren aberastasuna. Herritarren partaidetza eta demokrazia jarraituko ekimenak bultzatzea, herritarrek izan dezaten erabakitzeo, hobetzeko eta ebaluatzeo bidea.

Donostia Giza Eskubideekin konprometitutako hiria da. Eutsi egiten diogu lanean jarraitzeo konpromiso irmoari, Donostia giza eskubideen defentsan nazioarteko erreferente izan dadin.

Donostiak terrorismoaren eta indarkeriaren biktimen memoriaren defentsarekin konprometitutako hiria izaten jarraitu behar du, balio demokratiko eta zibikoetan hezteo hiri gisa duen apustua indartuz.

Hitzematen dugu, orobat, gure hiriaren historian izandako Giza Eskubideen urraketaren memoria kolektiboaren berri zabaltzeo ekimenak garatzen ere jarraitu dugula.

Sendo eusten diogu LGTBI+ kolektiboaren eskubideak defendatzeo konpromisoari. Lanean jarraitu dugu jokabide homofoboak eta LGTBI+ kolektiboaren eskubideak urratzen dituzten jokabide transfoboak gure gizartetik desagerrarazteo.

Berdintasuna lantzen jarraitu dugu, Udalaren eta udal gobernuaren lan-arlo guztiak eta hiriaren egunerokotasuna zeharkatzen dituen ardatz gisa. Horrela, politika publiko guztietan genero-ikuspegia txertatu eta udal-langileen prestakuntza indartzeaz gain, sexu eta genero indarkeriaren aurkako borrokan jarraitu dugu, bai eta emakumeen kalitatezko enplegua sustatzen ere.

Munduko hainbat tokitan jaiotako donostiarrak kolektiboki eraiki behar dugun Donostiako gizarte berrian integratzeo lan egingo dugu.

Udal-baliabideen kudeaketa aurreratuaren alde egiten dugu; hiri-gobernu ona, herritarren parte-hartzeo eta pertsonen integrazioa izateo modua emango duen kudeaketa.

Herritarren partaidetza-ereduaren hobekuntza bultzatuko dugu, egungo gizarte-errealitatera egokitu eta, hartara, herritarrek udaleko gaietan gehiago parte-hartzeko.

Donostiako gizarte eta hizkuntza aniztasuna onartzea, hiriaren gizarte-kohesioan lan egiteko.

Donostia da Euskadi osoan den hiririk euskaldunena. Biztanleen % 46,7 euskalduna da (83.866 pertsona). Eta zifra hori % 75era ere iristen da ia, 16 eta 24 urte bitarteko biztanleen artean. Familia eta gizarte erabilera ere EAEko gainerako hiriburuetan baino gehiago zabaldua dago gurean. Eta kontuan izan beharreko balioa dugu hori, euskararen normalizazio, sendotze eta bilakaera dinamikorako zer esanahi duen aintzakotzat hartuta.

Hala, garatu eta sustatu egin behar dugu aberastasun eta ondare kolektibo hori, euskara eremu guztietan normalizatzeko prozesua babestu, euskararen erabilera sustatu eta euskarazko kultur eskaintza indartu. Egungo erronka ikaskuntza eta erabilera sustatzea da, norberaren aberastasunerako bitarteko izateko, kohesio eta integrazio sozial eta kulturalerako tresna izateaz gainera.

Munduko hainbat lekutatik etorritako gero eta donostiar gehiago dituen hiri honetan, eleaniztasunak kultura eta gizartea aberasten laguntzen du, eta, beraz, hizkuntza guztien bizikidetzaren harmonikoa ahalbidetuko duten kultura-ekimenak bultzatu behar ditugu, elkar ulertzeko eta gizarteratzeko tresna gisa balio dezaten.

5. GURE HIRIAREN ETORKIZUN JASANGARRIA ERAIKITZEA.

Donostiak –Euskadik eta Euskadiko gainerako udalerriek bezala– garapen jasangarriaren ikuspegitik heldu behar dio etorkizunari. Izan ere, ezin dugu gure ondorengoaren etorkizuna arriskuan jarri. Hala, bada, babestu egin behar ditugu eskura ditugun baliabide naturalak, eta gizarte-politika publiko sendo eta kohesioaren eta gizarteratzearen bermatzaile baten babesean jarri. Horrek lidergo-gaitasuna eta estrategia politikoa eskatzen ditu, jasangarritasunaren hiru zutabeei helduko diena (ekonomia, ingurumena eta gizarte-politika).

Klima-aldaketaren aurkako borrokaren ardatz nagusietako bat mugikortasun jasangarria da, berotegi-efektuko gasen emisioa murrizteko.

Hiri jasangarri eta ingurune naturala errespetatzen duen hiri garen aldetik, etengabeko ahalegina egiten jarraituko dugu garraio publikoa, ibilgailu pribatuaren erabilera eraginkorragoa eta arrazionalagoa eta mugikortasun elektrikoa sustatzeko, CO2 emisioak eta kutsadura atmosferikoa murrizteko.

Mugikortasuna da donostiarren egunerokotasunean gehien eragiten duen gaietako bat, auzoen arteko loturarekin batera. Gainera, hirigintza-eraldaketa eta etorkizuneko hiriaren diseinua markatuko dituen elementua ere bada.

Uste dugu Donostiak apustu argia egin behar duela mugikortasun-eredu jasangarri baten alde, inplikaturako eragileekin erabaki eta adostutakoa; garraio publikoaren aldeko konpromisotik eta elkarrizketa eta helburu partekatuetatik abiatuta, oinezkoen, bizikleten eta ibilgailuen mugikortasun eraginkorra eta iraunkorra lortzeko.

Erakundeen eta herritarren arteko ulermena eta lankidetzaren indartzearen alde lan egingo dugu, donostiarren egungo kezkak eta egonezinak kontuan hartuta gure hiriarren ezaugarrietara egokituko diren zenbait politika eta neurri abian jartzeko orduan (isuri gutxi eremua, adibidez).

Ez gara hutsetik abiatuko. Baditugu ohitura on batzuk ere. Esate baterako, herritarren %45,7 oinez mugitzen da hirian, eta % 4,4 bizikletan. Epe laburrean, gainera, TOPOaren linea berri bat ere izango dugu, 7 minutu eta 30 segundoz behin zerbitzua emango duena hiriko 9 geltokietan. Era berean, berrituta eta modernizatuta izango dira RENFEk hirian dituen geltokiak ere, abiadura handiko trenaren (AHT) zerbitzuak iritsi arte.

Dbusen garraio publikoa etengabe hobetu eta garatzearen aldeko apustua, estrategikoa da mugikortasun jasangarrirako eta hiriarren lurralde eta gizarte kohesiorako. Hiriko Tranbia Konpainiaren kudeatzaile garen aldetik, donostiarrei eskaintzen diegun garraio publiko zerbitzua hobetzeko lan egingo dugu, MUGI tarifa-sistema integratuaren barruan, haren parte baikara gu ere. Era berean, Tranbia Konpainiaren hurrengo Plan Estrategikoa ere onartu beharko dugu, datozen urteetan izango duen norabidea markatuko duen plana izango baita.

Disuasio-aparkalekuak ezartzen ere lan egingo dugu, hirigunera hurbiltzeko garraio publikoarekin lotuta izan eta, hartara, ibilgailu pribatu gutxiago ibiltzeko kaleetan.

Lanean jarraituko dugu hiriko bidegorri sarea handitzeko eta hobetzeko; bizikletaren erabilera sustatzeko hartara, auzo guztietara zabalduko Dbizi zerbitzuaren bitartez.

Aktiboki lan egingo dugu klima-aldaketaren aurkako borrokan: azpiegitura berdeen bidez, gure biodibertsitatea eta hirian ditugun birika berde handiak kontserbatuz, eta auzo guztietako lorategi eta parkeen natura-ondarea hobetuz.

Energia garbiak sortzearen eta Donostiako auzo eta industrialdeetan energia-komunitate berriak sortzearen alde egingo dugu. Horretarako, herritarren eskura jarriko dira udal-eraikinen teilatuak, arian-arian garatzeko komunitate horiek; izan ere, eragin positiboa izango baitu horrek emisioak eta mendekotasun energetikoa murriztean.

Eraikin publikoetan eta etxeetan energia-eraginkortasuna sustatuko dugu. Teknologia jasangarriak erabiliko ditugu horretarako; gaur egungo erabilera eta ohitura batzuk ekonomia zirkularreko eta energia-eraginkortasuneko kudeaketa-metodo jasangarriagoetara aldatu, eta herritarren hezkuntza eta ingurumen-kontzientzia indartu haurtzarotik bertatik, hondakinak birziklatzea areagotzeari bereziki erreparatuta.

Bost konpromiso horiek markatzen dute 2023-2027ko Gobernu Programa idazteko abiapuntua. Gobernu Programak jasoko du, xehetasun eta zehaztasun handiagoz, hemen zerrendatutako helburuak lortzera bideratutako gobernu-ekintza. Idatzitakoan, Donostiako gizarteari aurkeztuko diogu.

3. GOBERNU ERANTZUKIZUNA

Alkatetza eat Alkateordetzak

Eneko Goia Laso	Alkatea
Nekane Arzallus	Lehen Alkateordea
Marisol Garmendia	Bigaren Alkateordea
Ane Oyarbide	Hirugarren Alkateordea
Jon Insausti	Laugarren Alkateordea

Tokiko Gobenu Batzordea

Eneko Goia Laso

Nekane Arzallus Iturriza

Mariaje Idoeta

Juanra Viles Mitxelena

Kerman Orbegozo

Martin Ibabe Eceiza

Ane Oyarbide

Carlos García

Cristina Lagé

Eskuordetzak

Nekane Arzallus

Hirigintza Plangintza eta Etxebizitza Berrirako zinegotzia

Jon Insausti

Kultur Nortasuneko, Euskarako eta Turismoko zinegotzia

Mariaje Idoeta

Gizarte Zerbitzuetako, Ekintza Komunitarioko eta Auzoetako zinegotzia

Olatz Yarza

Mugikortasun eta Garraio Jasangarriko zinegotzia

Martin Ibabe

Segurtasuneko eta Bizikidetzako zinegotzia

Kerman Orbegozo

Pertsonak, Ekonomia eta Aurrekontua kudeatzeko zinegotzia

Ana López

Gobernantza Ireki, Digital eta Kolaboratiboko zinegotzia

Marisol Garmendia

Ekonomiako eta Bertako Enplegurako zinegotzia

Marisol Garmendia

Ekologiako zinegotzia

Iñaki Gabarain

Kiroletako eta Bizitza Osasuntsurako zinegotzia

Ane Oyarbide

Hiri proiektuetako zinegotzia

Carlos García

Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako zinegotzia

Cristina Lagé

Aniztasuneko, Inklusioeko eta Berdintasuneko zinegotzia

Horregatik guztiagatik, EAJ-PNV eta PSE-EE udal-taldeek Donostiako Ituna garatzeko konpromisoa hartu dute:

Donostian, 2023ko ekainaren 18an.

Eneko Goia Laso

EAJ-PNV

Marisol Garmendia Beloqui

PSE-EE
